


# **Apurtuta dauzkat** oraindik behatzak.

# Aukera egokien eskema orokorra



# Mendebaldean:

- *partizipioa + -rik* (orokorra)

(eduki)

- **Apurturik daukat** oraindik behatza.
- **Apurturik dauzkat** oraindik behatzak.

(egon)

- Leihoa **apurturik dago**.
- Leihoak **apurturik daude**.

# Mendebaldean:

- *partizipioa + -ta* (gero eta erabiliagoa)

(eduki)

- Apurtuta daukat oraindik behatza.
- Apurtuta dauzkat oraindik behatzak.
  - *Apurtutak dauzkat oraindik behatzak.

(egon)

- Leihoa apurtuta dago.
- Leihoak apurtuta daude.
  - *Leihoak apurtutak daude.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# Ekialdean:

-partizipioa + -a / -ak

(ukan)

- Irakurria dut gai horri buruzko liburu bat.
- Irakurriak ditut gai horri buruzko liburu batzuk.

(izan)

- Leihoa apurtua da.
- Lurrean sakabanatuak ziren orri guztiak.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# Erabilera hibridoa:

**-partizipioa + -a / -ak + eduki / egon**

(eduki)

- **Irakurria daukat** gai horri buruzko liburu bat.
- **Irakurriak dauzkat** gai horri buruzko liburu batzuk.

(egon)

- Leihoa **apurtua dago**.
- Lurrean **sakabanatuak zeuden** orri guztiak.

# Gainerako aukerak tradizio nagusitik kanpo geratzen dira, eta ez ditugu egokitzat jotzen.

## -partizipioa + -ta / -rik + izan / ukan

- Salduta /saldurik zituen etxe guztiak.
  - Salduak zituen etxe guztiak.
- Galduta / galdurik naiz mendian.
  - Galdua naiz mendian.